

KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEAREN ERABAKIA; HORREN BIDEZ, ONARTU EGITEN DA [REDACTED] JAUNAK ETA BESTE HAMAIKA PERTSONAK BIZKAIKO PADEL FEDERAZIOKO HAUTESKUNDE-PROZESUAREN INGURUAN AURKEZTU ZUTEN ERREKURTSOA

Espediente-zenbakia: 10/2016

AURREKARIAK

LEHENA.- [REDACTED] jaunak, bere izenean eta beste hamaika pertsona ordezkatzuz, idazki bat aurkeztu zuen maiatzaren 3an, izenburu honekin: «Bizkaiko Padel Federazioaren hauteskunde-batzordearen 2016ko maiatzaren 2ko ebazpenaren kontrako errekurtsua aurkezteko idatzia, hauteskunde-batzordeari (*) eta Kirol Justiziako Euskal Batzordeari zuzendua, azken orrialdean azaltzen diren kautelazko neurriak hartzeari dagokionez».

BIGARRENA.- KJEBeko jarduneko idazkariak, maiatzaren 9ko data duen idazkiaren bidez, errekurtsua helarazi zion Bizkaiko Padel Federazioari (aurrerantzean, BPF), espedientea bidaltzeko eta, beharrezkoa balitz, alegazio-idazkia eta beharrezkotzat jotzen zituzten froga-eginbide guztiak aurkezteko eskatuz.

HIRUGARRENA.- BPFko hauteskunde-batzordeko presidenteak, dokumentu horri erantzun zion maiatzaren 31n sarrera-erregistroan sartu zen idazki baten bidez. Bertan eskatzen zuen errekurtsua gaitzesteko, bai kautelazko neurriak hartzeari dagokionez bai gainerako eskari guztiei dagokienez, eta hauteskunde-prozesu guztiaren egokitasuna berretsi zuen.

LAUGARRENA.- Kirol Justiziako Euskal Batzordearen aurreko kideen agintaldia 2016ko otsailaren 9an amaitu zen, eta egungo kideak 2016ko maiatzaren 17an izendatu zituzten.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

LEHENA.- 14/1998 Legearen 138 b) artikuluan eta 310/2005 Dekretuaren 3.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, KJEBk du errekurtsu hau aztertzeo eskumena.

BIGARRENA.- Egokia da, lehenik eta behin, [REDACTED] jaunak aurkeztu duen idazkiaren nolakotasuna zein den ebaztea; BPFko hauteskunde-batzordeak haren norainokoa zalantzan jartzen baitu, hitz hauekin:

[Aldez aurretik esan behar dugu goian aipatutako espedientea eragin duten idazkiek ez dutela benetan Bizkaiko Padel Federazioko hauteskunde-prozesuan hauteskunde-batzordeak hartu duen erabaki baten edo gehiagoren kontrako errekurtsu edo inpugnazioen nolakotasuna, ez formari ez edukiari dagokienez.

Horrela, idazkia hitz hitz aztertuz, ikusiko dugu «AZKEN ORRIALDEAN AZALTZEN DIREN KAUTELAZKO NEURRIAK HARTZEARI DAGOKIONEZ» baino ez zaiola helarazten errekurtsua Batzordeari, argi eta garbi esaten den bezala.

Hau da, batzorde honi errekurtsua kautelazko neurri bat hartzeko bakarrik bidaltzen zaio (...)

Hauteskunde-batzordearen ustez, idazki horietan aurkeztutako gai horiek guztiak gaitzetsi beharrekoak dira, garaiz kanpo aurkeztu direlako, bai hauteskunde-batzordearen aurrean aurkeztutakoak, bai KJEBren aurrean aurkeztutakoak. Izan ere, egokia ez den une batean edo, gutxienez, egokia ez den organoaren aurrean aurkezten dira, ez baitago aurrez erabaki bat eman duen hauteskunde-organoaren aurrean berraztertzeo errekurtsua aurkezteko aukerarik.

Hori dela-eta, uste dugu Kirol Justiziako Euskal Batzordeak ezin dituela, inola ere, idazki horiek aztertu hauteskunde-batzorde honen erabaki edo ebazpenen kontrako errekurtsuak balira bezala. Aitzitik, gehienez ere, kautelazko neurri bat hartzeko eskaera bezala aztertu beharko lituzke eta, logikoki eta lehen esan dugun bezala,

gaitzetsi egin behar dira neurri horiek, Kirol Justiziako Euskal Batzordearen aurrean aurkeztutako inpuñazioa ere ez baita ematen idazkiekin batera (...)].

30/1992 Legearen 110.2 artikulua arabera, «errekurtsogileak bere errekurtsoa oker kalifikatzea ez da oztopo izango hura izapidetzeko, baldin eta benetan zein motatako errekurtsoa den igar badaiteke».

Azter dezagun, bada, errekurtsogileek aurkeztutako idazkia, benetan zer motatakoa den ikusteko.

Idazki hori lehen aurrekarian azaltzen den izenburuarekin aurkeztu da, eta eskaera bat egiten dio hauteskunde-batzordeari eta beste bi Batzorde honi. Azken hori berebat baten bidez egituratzen da, hitzez hitzeko eduki honekin:

[BEREBAT DIOT: Alderdi honek zera eskatzen dio Kirol Justiziako Euskal Batzordeari: Kirol Justiziako Euskal Batzordea sortu eta arautzen duen urriaren 18ko 310/2005 Dekretuaren 17. artikulua aplikatzeko premiaz (epeen nolakotasuna dela-eta):

17. artikulua.– Kautelazko neurriak (...).

Horren babespean, KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEARI zera erregutzen diot: hauteskunde-prozesua eten dezala, hautagaitzei prozesuaren zati honetan konpondu ezinezko kaltea egitea galaraziz, errekurtsu honen gaia argitzen ez den bitartean»].

Erabilitako teknika ortodoxoa eta egokiena izan ez arren, onartu beharrean gaude, esandakoa eta formulazioa irakurrita, kautelazko neurri zehatz bat hartzeaz gain, benetako errekurtsu bat aurkeztea ere badela helburua. Horrexegatik esaten dute: «prozesuaren zati honetan (...), errekurtsu honen gaia argitzen ez den bitartean».

Gainera, esanguratsua da errekurtsogileek 310/2005 Dekretuaren 17. artikulua aipatzea. Izan ere, 17. artikulua horren 2. atalean honako hau xedatzen da: «Kautela-neurriak errekurtsoarekin batera eskatuko dira, orokorrean».

Eta testuinguru horretan kokatu behar da eskatutako kautela-neurria, errekursoarekin batera ematen den bitarteko instrumental bezala.

Ondorioz, eta esandako guztia dela-eta, erabaki da aurkeztutako idazkiak errekurso izaera duela; gainera, dagokion epean aurkeztu da, datak erkatuta ikusten denez (inpugnatzen den hauteskunde-batzordearen erabakia maiatzaren 2an hartu zen, eta errekurtoa hurrengo egunean aurkeztu zen).

HIRUGARRENA.- Errekurtsoaren bidez Bizkaiko Padel Federazioko hauteskunde-batzordeko 2016ko maiatzaren 2ko ebazpena inpugnatzen da. Dokumentu horren bidez aurkeztutako erreklamazio guztiak aztertu ziren, eta behin-behineko hainbat hautagaitza baliogabetu ziren: bederatzi klubena, epaileen estamentuko epaile batena eta teknikarien estamentuko bi hautagairenak.

Maiatzaren 2ra arte honako prozedura hau jarraitu zen:

«1.- Apirilaren 19ko bileran, hauteskunde-batzordeak honako hau erabaki zuen: 1- Behin-behineko hauteskunde-erolden aurkako erreklamaziorik aurkeztu ez denez, errolda horiek behin betiko izendatzea. 2.- Zazpi (5) -sic- egun naturaleko epe bat irekitzea estamentuetarako hautagaitzak aurkezteko. 3.- Akta hau Federazioaren iragarki-oholean eta webgunean argitaratzea.».

2.- Apirilaren 26ko bileran, hauteskunde-batzordeak kirol-klub eta kirol-elkarteen estamentuan, kirolarien estamentuan, epaileen estamentuan eta teknikarien estamentuan aurkeztutako hautagaitzak behin-behinean onartzea erabaki zuen, eta inpugnazioak egiteko bi eguneko epea ireki zuen.

3.- Komenigarria da ohartaraztea errekurtsogile guztiak behin-behinean onartutako hautagaitzetako kideak zirela.

4.- Erreklamazioetarako epean, hainbat klubek inpugnazioak aurkeztu zituzten.

5.- Hori ikusita, batzordeak kontsulta egin zien Euskadiko eta Bizkaiko federazioei eta horiek frogagiri bana bidali zuten, honakoa egiaztatzen zutenak: a) inpugnatutako klubek ez dutela kirol-jarduera esanguratsurik egin Bizkaian 2015ean eta/edo 2016an; eta b) [REDACTED], [REDACTED] eta [REDACTED] jaunek ez dutela Euskadiko Padel Federazioak emandako lizentziarik.

6.- Maiatzaren 2ko bileran, hauteskunde-batzordeak aurkeztutako inpugnazio guztiak onartu zituen, klubek ez zutelako kirol-jarduera esanguratsurik federazioarekin eta teknikariek eta epaileek BPFko kide zirela frogatzen duen lizentziarik ez zutelako.

Horren guztiaren ondorioz, maiatzaren 2ko erabakiaren eranskinean esaten den bezala «(...) ez da beharrezkoa izango bozketarik egitea kirol-klub/kirol-elkarteen estamentuan (9 hautagai) eta teknikarienean (2 hautagai), bi kasu horietan bete beharreko plaza-kopuruak eta hautagai-kopuruak bat egiten dutelako.

Horrela, Batzar Nagusiko bozketak kirolarien estamentuan (6 hautagai 3 plazatarako) eta epaileenean (2 hautagai plaza bakar baterako) egingo dira bakarrik.».

LAUGARRENA.- Hauteskunde-batzordeak alegazio hauek egin ditu: a) BPFren administrazio-zerbitzuek emandako datuekin egindako behin-behineko errolden behar bezalako publizitatea egin zuela, datuak aurrez eguneratuak zeudelako ustean; b) inork ez zuela behin-behineko errolda horien aurkako inpugnaziorik aurkeztu; c) gerora ikusi zutela datuak ez zeudela behar bezala eguneratuak, datuetako batzuk okerrak zirela egiaztatu baita; d) hautagaitzak inpugnatzeko epean Bizkaiko hainbat klubek aurkeztutako inpugnazioak jaso zirela; e) inpugnazioak aztertu ostean, hauteskunde-batzordeak onartu egin zituela, hauteskunde-arautegiaren 5.3 artikulua eta BPFko estatutuen 9., 10. eta 17. artikuluen arabera.

Bestalde, errekurtsogileek honako hau argudiatzen dute: a) apirilaren 9ko ebazpenaren bidez, hauteskunde-errolda onartu zela behin-behinean, eta errolda hori behin betiko bilakatu zela apirilaren 19ko erabakiaren bidez, haren

aurkako erreklamaziorik egin ez zelako; b) araudiaren 5.7 artikulua honako hau esaten duela: «Hauteskunde-prozesuen hurrengo faseetan ezin da behin betiko onartu den hautesleerrolda inpugnatu, jurisdikzio-bidean edo Kirol Justiziako Euskal Batzordearen aurrean egin daitezken jarduketak gorabehera»; c) are gehiago, Kulturako sailburuaren 2012ko otsailaren 19ko aginduaren 26.2 artikulua honako hau dio: «Errekurtsioak erabaki ondoren, eta hauteskunde-errolda behin finkatu eta gero, ez da inolako inpugnaziorik egiterik izango erroldaren inguruan hauteskunde-prozesuaren beste faseetan zehar, betiere prozesua amaitutakoan Kirol Justiziako Euskal Batzordean edo auzibidean abia daitezkeen inpugnazioei kalterik eragin gabe»; d) Hauteskunde-araudiaren 10. artikuluan zehazten dira hautagaiak bete beharreko baldintzak: 18 urte izatea; administrazio-egoitza edo sozietatearen helbidea Bizkaian izatea; epailearen erabaki irmo bidez ezgaitutzat ez jotzea; gaitasungabetuta ez egotea; hautagai izateko nahia hauteskunde araudian ezartzen denaren arabera aurkeztea; hauteskunde-batzordeko edo hauteskunde-mahaiko kide ez izatea eta hautagaiaren estamentuari dagokion hautesleerroldako atalean agertzea edo behar bezala erroldatuta dagoen entitate baten ordezkari izatea.

BOSGARRENA.- Errekurtsogileak apirilaren 19an onartutako behin betiko hauteskunde-erroldan eta behin-behineko hautagaitzen zerrendetan agertzen zirenez, auziaren mamia arrazoi horiengatik hautagaitzak baliogabetzeko maiatzaren 2ko erabakia hauteskunde-araudiaren arabera den edo ez ebaztean datza.

Eta erantzuna ezezkoa da, hau da, hautagaitza horiek baliogabetzea ez da hauteskunde-araudiaren arabera. Eta horren arrazoa zera da: hauteskunde-erroldak behin betiko eta hautagaitzak behin-behinean onartu ostean, inpugnaziorako arrazoi bakarrak 10. artikuluan zerrendatuta daudenak dira. Hauteskunde-batzordeak hautagaitzak baliogabetzeko erabili dituenak, hau da, Bizkaian kirol-jarduera esanguratsurik ez izatea edo Euskadiko Padel Federazioak emandako lizentziarik ez izatea ez daude, ordea, arrazoi horien artean.

Aurreko hori guztia aintzat hartuta, KJEBak honako hau

ERABAKI DU

████████████████████ eta beste hamaika pertsonak Bizkaiko Padel Federazioko hauteskunde-prozesuaren harira aurkeztutako errekurtoa onartzea.

Erabaki honek administrazio-bidea amaitzen du. Beraz, bere aurka aukerako berraztertze errekurtoa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Kirol Justiziako Euskal Batzordeari hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edo bestela administrazioarekiko auzi-errekurtoa Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian edo errekurto-egileen helbidearen arabera dagokienean, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, halaxe xedatzen du-eta Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko uztailaren 14a.

JOSÉ LUIS AGUIRRE ARRATIBEL
Kirol Justiziako Euskal Batzordeko presidentea